

*Egileek irakaskuntza ar-
loko hizkuntz plangin-
tzaren gaineko azterketa-
ri heldu diote, ikuspegi
juridikotik abiatuz baina
era ulerterrazez. Azterke-
ta, berria eta originala
da, azken urteotako arau
berriak eta berauen gai-
neko praxia ikertzen bai-
ta. Bertan, era zuzen eta
aldi berean kritikoan ar-
gitzen den eran, euskara
eta irakaskuntza elkar-
biltzen dituzten zenbait
aspektu, hala nola, A ere-
dua, azken urteotako
oposaketen sostengu juri-
dikoa eta berauen praxia
bera, nekez dira zuzenbi-
dearekin bateragarri. Ho-
rretaz gainera, irakas-
kuntzako hizkuntz plan-
gintzaren bazter ilunak
argitze bidean jartzeko
oso baliogarria bada az-
terketa hau.*

IRAKASKUNTZA EZ UNIBERTSITARIKO HIZKUNTZ PLANGINTZA EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN

Iñaki Lasagabaster Herrarte

Zuzendide administratiboko katedraduna EHU/UPVn

Iñigo Urrutia Libarona

Zuzenbide administratiboko irakaslea EHU/UPVn

ALDEZ AURREKOA

Irakaskuntza ez Unibertsitariko Hizkuntza Plangintzaren gaineko azterketa hau ez da osoa, partziala baizik, zenbait aztergai ez baitira jorratuak izango, hala nola irakaskuntza pribatuko hizkuntz plangintza, IRALE, leku aldaketarako lehiaketak, babes taldeak, ikastolak eta plangintza, planifikazioaren lurralde elementuak eta zehazkiago orain aurkeztu berri den Eskola mapa (ponentzia hau aurkeztua izan zenean oraindik ere Eskola mapa isilpeko egitasmo bat besterik ez zen, gaur egun, ordea, mapa aurkeztua izan da baina lan honetan aipamenik ez du jasoko, lan horri ekiteko beste aukera baten zain geratzen garelarik).

INDARREAN DAGOEN ARAUBIDE APLIKAGARRIA

Irakaskuntza ez Unibertsitariko Hizkuntza Eskakizunen gaineko

arabidea, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren bidetik etorri da, «irakaslanpostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzeari buruzkoa»ren bidetik, hain zuzen ere. Dekretua, azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen erabilpena normaltzeari buruzko Legeko (ENL aurrerantzean) 15 eta 21. artikuluko bitartekoan agintzen dena garatzera etorri da. Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak (6/1989 Legea, uztailaren 6koa), bere 23. artikuluan honako hau agindu zuen: «Lege hau aplikatzeko, arau bereziak eman ahal izango dira legea, osasun; irakaskuntza eta ikerlaritza langileen berezitasunei egokitu ahal izateko». Irakaskuntza arloan eta OHOn bereziki ezagunak diren hiru eredu linguistikoak ezarriak izan ziren: A, B eta D. Arlo honetan, hizkuntz eskakizunak zehaztu zituen arau bakarra 1986ko ekainaren 4ko Agindua izan zen, B ikastereduan hizkuntz eskakizunak zehaztuz, hain zuzen ere. Horren ondoren euskara eta irakaskuntzari buruzko aginduak arautuak ageri zaizkigu Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean (1/1993 Legea, otsailaren 19koa —EPL—) eta baita EAeko Unibertsitatekoek kanpoko irakaskuntzako Gorpu Dozenteei buruzko Legean ere (2/1993 Legea, aurrekoaren data berekoa).

**«47/1993 Dekretuak
Hizkuntza Eskakizunak
finkatzerakoan, 0
profila (edo 0 H.E.) ez
du zehaztu. 1 H.E.
hezkuntza-sistema
osoan gutxienezko
profila da eta hizkuntz
eskakizun horrek
zenbait funtziotarako
gaitasuna eskatzen du»**

PLANGINTZA ZEIN IRIZPIDEREN ARABERA BURUTU BEHAR DEN

Plangintza, ondorengo irizpide hauetara egokitu behar da:

- a.- ENLko Aitzinsolasean, ikasleek irakaskuntza euskaraz jasotzeko eskubiderik badutela zehazten da, aukeratu ez den hizkuntza ofizialaren gaineko derrigorrezko irakaskuntza arautuz,
- b.- irakaskuntzak, hizkuntza ofizial bien gaineko ezagutza nahikoa lortu (/bermatu) behar du,
- d.- irakaslegoaren prestakuntzak irakasplangintzen egokitzapena eskatzen du euskaraz zein gaztelera erabateko gaitasuna bermatzeari zuzendua,
- e.- «Euskal Autonomi Elkarteko irakaskuntza sisteman elebitasuna harian harian orokortzeari begira» beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira (ENLa, 15. art., bigarren apaldia),
- f.- euskara eta gaztelera irakasplangintzetan barneratuak izan behar dira «bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena

«2. Hizkuntza

Eskakizuna euskarazko edo euskaraz irakaskuntzak ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie, eta euskara zerbitzu hizkuntza eta irakaskuntza hizkuntza lez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntz gaitasuna

benetakoa izan eta gutxienez ohiko harremanetarako eta erabilerarako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezen» (EPLa, art. 18a),

g.- LOGSEk (Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrerako Lege Organikoa) hezkuntza sistema «gazteleraren eta Autonomi Elkartearen hizkuntzaren gaineko ulermena eta adierazpen egokia» bermatzeko baliogarria izan behar dela agintzen du,

h.- 47/1993 Dekretuak Hizkuntza Eskakizunak finkatzerakoan, 0 profila (edo 0 H.E.) ez du zehaztu. 1 H.E. hezkuntza-sistema osoan gutxienezko profila da eta hizkuntz eskakizun horrek zenbait funtziotarako gaitasuna eskatzen du, funtzio hauek irakaskuntza sistemak berak ere bermatu beharrezkoak direlarik, hots, irakaskuntza iharduerarekin zerikusia duten gaietaz eta ikasleen adinari egokitzen zaien ohiko arazoetaz euskaraz hitz egiteko gai izatea (47/1993 Dekretuko, art. 4a).

HIZKUNTZ ESKAKIZUNEI BURUZKO DEKRETUAREN GAI NEKO AZTERKETA

1.- EZAUGARRIAK

Irakaskuntza arloan, Administrazio Orokorrean ez bezala, bi hizkuntz eskakizun besterik ez dira arautu, 1 H.E. eta 2. H.E. alegia.

1. H.E. ez euskarazko ez euskaraz irakaskuntzak ematen ez dituzten irakasleek betetako irakaslanpostuei ezarri zaie, euskara zerbitzu hizkuntz lez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntz gaitasuna bermatu behar duelarik (47/1993 Dekretua, art. 3a)

Dekretuarentzat, 1 H.E. duen irakaslea, beste gauza batzuren artean honako honetarako ere izango da gai:

a.- ikasleekin bakarka edo taldean irakaskuntza iharduerarekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai,

b.- ikasleekin bakarka edo taldean beren adineko arazoekin eta interes bereziekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai,

d.- gurasoekin, irakasleekin eta hezkuntza administrazioako langileekin eskolaren funtzionamenduaz hitz egiteko gai izatea. (47/1993 Dekretua, art. 4a)

2. Hizkuntza Eskakizuna euskarazko edo euskaraz irakaskuntzak ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie, eta euskaraz zerbitzu hizkuntza eta irakaskuntza hizkuntza lez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntz gaitasuna bermatzeari zuzentzen da.

Zehazki, 2 H.E.k ondorengoak bermatu behar ditu:

- a.- 1 H.E.rako zehazturiko guztia euskaraz bete ahal izatea,
- b.- ikasgaia euskaraz emateko gaitasuna,
- d.- euskarazko argitalpenak, programa ofizialak, testu liburuak etab. ulertzeko gaitasuna,
- e.- ahozko materiala, bideoak, zintak eta irrati programak, besteak beste, ulertzeko gaitasuna,
- f.- programa orokorrak eta bakoitzaren alorreko programazioa euskaraz idazteko gaitasuna,
- g.- fitxak, apunteak, materialak, ariketak, etab. euskaraz idazteko gaitasuna,
- h.- ariketen zuzenketa eta ikasleen lana balioztatzeko edozein ihar-duera euskaraz egiteko gaitasuna.

Dekretuak Hizkuntza Eskakizunak ikasteredu eta irakaskuntza motaren arabera banatzen ditu.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako/OHOko ikastetxeetan, bete beharreko Hizkuntza Eskakizunak honako hauek dira: A ereduko ikastetxeetan 14 irakasleetatik 11k 1 H.E. izan behar dute, gainerako 3ek 2. H.E.; B ereduko ikastetxeetan 4 irakasle 1 H.E.a eta gainerako 10ek 2. H.E. izango dute; D ereduko ikastetxeetan irakasle bakar batek 1 H.E. izango du eta gainerako 13ek 2. H.E. izan beharko dute. Ikastetxeetako irakasle kopurua 14 zenbakiaren multiploa ez den kasuetarako, ezarri beharreko 1 eta 2. H.E.en kopurua, aurreko zenbatekoetatik sortzen den heinekoa ezarrita ateratzen dena izango da.

Irakaskuntza Ertainetako Ikastetxeetan bi hizkuntz eredu besterik ez dira zehaztu, A eta D, alegia. B ikasteredua, beraz, teoriarik, desagertzen da. Maila honetako A ereduko ikastetxeetako irakasle guztiek 1 H.E.ren jabe izan behar dute eta euskal hizkuntza eta literaturaz ardu-

«Haur eta lehenbiziko irakaskuntzan/OHOan A hizkuntz ereduko 1 H.E.k hamar urteetako epean derrigortasunik gabekoak dira. Aldiz, B hizkuntz ereduko lau 1 H.E.ek hamar urteetako iraupena duen Plangintzaldia bukatu aurretik derrigortasuna behar dute izan»

«Harrigarria gerta dakiguke irakaskuntza arloan Zero H.E. egon dadila eskatuz oihuak entzutea, 1 H.E.ko irakaslanpostuei derrigortasunik ezarri ez zaien honetan»

ratzen denak 2. H.E.aren jabe. Ikastetxeko ereduak D izanik, irakasle guztiek 2. H.E.aren jabe behar dute izan.

Hizkuntza Eskakizunekin batera, zenbait esentzio edo salbuespen kausa arautu dira, salbuespen kausok Administrazio Orokorrean gertatzen ez diren eraginak sortarazten dituztelarik, izan ere, salbuetsizat jo izan den kideak ez baitu derrigortasuna duen Hizkuntza Eskakizundun irakaslanpostuan aritzerik, iharduera tipikoa ezin baitu burutu, hots, irakaskuntzarik ez du eskaintzerik. Hortaz, salbuetsita uzten diren irakasleek, gerora arau daitezkeen deialdien bidez, lekualdaketa lehiaketetan parte hartu eta 1 H.E. ezarrita duten lanpostuak bete ahal izango dituzte, baldin eta lanpostu horiek berehalako derrigortasun eguna finkatuta ez badute (47/1993 Dekretuko 12. art.).

Behin Hizkuntza Eskakizunak zehaztuak direla, derrigortasunak zehazteari bide eman behar zaio, hots, euskararen gaitasuna irakaslanpostuan diharduen kideari noiztik aurrera eskatu behar zaion. Derrigortasunaren zioetarako hizkuntz ereduak desberdinak ezezik, lehenbiziko eta oinarriko irakaskuntza batetik eta bigarrenko irakaskuntza bestetik desberdintzen dira ere.

Haur eta lehenbiziko irakaskuntzan/OHOn A hizkuntz ereduko 1 H.E.k hamar urteetako epean derrigortasunik gabekoak dira. Aldiz, B hizkuntz ereduko lau 1 H.E.ek hamar urteetako iraupena duen Plangintzaldia bukatu aurretik derrigortasuna behar dute izan.

B hizkuntz ereduko 2 H.E.ek berehalako derrigortasuna behar dute izan, bi ezik, berauen derrigortasuna, hamar urteetako plangintzaldia bukatu aurretik ezarri behar direlarik. D hizkuntz ikastereduko 1 H.E.ek zein 2 H.E.ek berehalako derrigortasunak ezarri behar zaizkie.

Irakaskuntza Ertainetan, 1 H.E. guztiek hamar urte igaro aurretik ez dute derrigortasunik izango.

Hizkuntz Eskakizunen egiaztatzea (edo kreditatzea). Irakaslanpostua bete ahal izan dadin beharrezkoa den H.E.n kreditatzea, bi irizpideren arabera gertatu behar da; hona hemen zein diren:

a.- Irakaskuntza alorreko Funtzio Publikora lehenbiziko aldiz sartu nahi dutenek, bereganatu nahi duten lanpostuari ezarritako hizkuntz eskakizuna egiaztatu beharko dute (47/1993 Dekretuko 7. art.), hots, zero profilik ez da arautu, beranduago egingo diren zehaztasunen kaltetan gabe, noski.

b.- Derrigortasun eguna iristen denetik aurrera, hizkuntz eskakizuna betetzea ezinbesteko beharra izango da dagokion lanpostua lortu edo bertako lanak betetzeko (47/1993 Dekretuko 7. art.). Hizkuntz Eskakizuna egiaztatzeko edo kreditatzeko era, hirugarren Xedapen Gehigarrian arautua ageri zaigu. 2 H.E kreditatutzat jo ahal izango dute EGA (Euskararen Gaitasun Agiria), EGAREN baliokidetzat jotzen diren titulu edo diploma, eta EITren (Euskaraz Irakasteko Trebetasun-Aitormena) jabe direnek, baita espezialitatea euskal adarretik lortu duten irakasleek ere. 1 H.E. kreditatutzat jo ahal izango dute IGA (Irakasgaitasun-aitormena) edo GUMAREN (Gutxienezko euskara maila) jabe direnek.

Bukatzeko, 47/1993 Dekretuko 14 eta 15. artikuluek euskalduntze plangintza arautu dute.

2.DEKRETUAREN GAINEKO KRITIKA ZENBAIT

Hizkuntza Eskakizunak arautzen dituen Dekretuaren gaineko kritikek, lotura handia dute hizkuntz ereduen gain egin daitezkeen kritikekin, bereziki A ereduaren gain egin daitezkeenekin.

Aipatu hizkuntz ereduak, A ereduak alegia, esperientziak berak argi isladatu digunez, irakaskuntza sistemak bermatu behar duen helburuetatik oinarrikoenatarikoa bermatzeko gaitasunik ez du erakutsi, hots, ikasleei Autonomi Elkartean ofizialak diren hizkuntzen gaineko irakaskuntza ahalbideratzea eta irakaskuntza alorrean elebitasunaren aurrerakadari bide ematea¹.

A hizkuntz ereduaren gaineko kritika areagotzen da 47/1993 Dekretuak Hizkuntza Eskakizunetaz eta derrigortasunetaz jaso dituen aginduei so eginez. Noski, A hizkuntz ereduiko ikastetxeetako 1 H.E.ko irakaslanpostu guztiak derrigortasun datarik gabekoak dira (hori horrela, Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetan 14 irakasleetatik 11ek dute 1. H.E, beraz, derrigortasunik gabeko 11 H.E.n daude eta, Irakaskuntza Ertainetako A ereduiko ikastetxeetako irakasleen artean, euskal hizkuntza eta literaturazkoa ezik, gainerakoek 1 H.E. dute, derrigortasunik gabekoak beraz), eta horrek larregi okertu gabe ondorengo baiezatzera garamatza, hots, ikastetxe horietan iharduerak, partzialki bederen, euskaraz burutu ahal izateko inolako aukerarik ez dago. Bestalde, harrigarria gerta dakiguke irakaskuntza arloan Zero H.E. egon dadila eskatuz oihuak entzutea, 1 H.E.ko irakaslanpostuei derrigortasunik ezarri ez zaien honetan.

1) A hizkuntz ereduaren gainean burutu diren azterketek, isladatu dute A ereduak euskararen ikasketari (ezagutzari nahi bada) bide ematen ez diola, ikus Madariaga Orbea, José María, *El papel de las aptitudes en la educación bilingüe. Estudio comparativo realizado según los modelos lingüísticos A y D* in Idiazabal, I. eta Kaifer, A (edit.) *Eficacia educativa y enseñanza bilingüe en el País Vasco*, HAAE-IVAP, Vitoria-Gasteiz, 1994, 117.or eta hurr. eta, bereziki 132.a non honako hau agertzen baituen: «el modelo A ha evidenciado serias carencias para lograr el objetivo del bilingüismo que la legalidad vigente plantea, mientras que el modelo D no ha presentado ningún inconveniente con las variables manejadas y sí varias ventajas». Euskal Autonomi Elkarteko Gobernuak bultzaturiko ikerketek ere ondorio bera agertzen digute. Ikus EIFE. Euskararen irakaskuntza: Faktoreen eragina. *La enseñanza del euskera: Influencia de los Factores*, Eusko Jaurlaritzako Argitarapen Zerbitzu Zentrala, Vitoria-Gasteiz, 1986, 25. or., non A ereduaren gainean ondorengo adierazten baituzten: «el conocimiento que poseen del euskera se limita comunmente a la comprensión de frases simples y a la expresión de palabras sueltas». Azterketa beraren erreferentzia galdu gabe, 1990. urteko edizioan, *Estudio de segundo de EGB en los modelos A, B y D* azpizenburutua izan zena, 46. or.an honako irakur daiteke: «el modelo A no asegura en general un nivel suficiente de competencia en euskera». Eta, ildo berroni jarraiki, Euskadiko Kontseilu Eskolarrak bere *Informe sobre la situación de la educación en la Comunidad Autónoma del País Vasco*, Eusko Jaurlaritzaren Argitarapen Zerbitzu Zentrala, Vitoria-Gasteiz, 1991, 52. or.

2) Dekretuaren zurruntasunaren funtsa, EAJ-PNV/PSE-EE (PSOE) alderdiek sinaturiko «Acuerdo político para el pacto escolar» eko edukia- rekin zerikusi zuzena du; izan ere, akordio horretan zurruntasun handiz jasotakoa, Dekretura era zuzenean ekarria izan baitzen.

B hizkuntz ereduan ezarritako derrigortasunak ez dago zuzenagoak direnik esaterik. Derrigortasunak hamar urteren ondorenera atzeratzen dira. Arauak 1. H.E.ei gehienezko epe hori bukatu aurretik derri- gortasuna ezarri behar zaiela agintzen badu ere, horrek, praktikan, hizkuntz eskakizuna epea igaro ondorenera iraingitzea ekarriko du kasurik gehientsuenetan. 2 H.E.etako derrigortasunak, bost urtera at- zeratzen dira eta, horren ondorioz, bost urtez B ereduko ikastetxee- tan euskaldunak eta erdaldunen arteko proportzioa %50ekoa izatea espero daitekeena da, 1986ko ekainaren 4ko Agindu kritikatuak ze- haztutako bideari ekinez edo, berorren eraginak luzatuz nahi bada.

D ikastereduetan 14 ikasleetatik bati lehenbiziko Hizkuntza Eskaki- zuna ezartzea, hizkuntz politikaren abiapuntutik inolako oinarririk ez duen gauza bat da. Euskadiko Kontseilu Eskolarreko Txostenarekin bat, D ereduetan 1 H.E. bana ezartzea ez dago zuzentzat jotzerik.

2.003 urtean arte, derrigortasunik ez eskatzea eta, data horren ondo- ren indarrean egon daitekeen politikaren gaineko zalantza arrazona- garriek bide emando diote euskararen ezagutza/ ez ezagutza parame- traren arabera sailkatutako irakaslegoari, irakaskuntza sistema elebi- duna hezurmamitzeruntz aurrerapausorik ematerik egongo ez dela- rik.

47/1993 Dekretuak larregizko zurruntasunez zehazten ditu hizkuntz eredu bakoitzean Hizkuntz Eskakizunak eta baita derrigortasunak ere². Dekretuaren zurruntasunak Ikastetxeei beren irakaskuntza proiektu propioa prestatzeko ahalmenari eta autonomiari mugak jartzen diz- kio, ikastetxeek arlo honetan politika propiorik garatzerik ez baitute izango, horretarako Dekretuak tokirik ez baitu uzten. Hori horrela, zenbaitetan Ikastetxeek irakaslegoaren euskalduntze prozesuan pau- so sakonagoak ematerik zituztenean, ez Administrazioaren ekimenez, irakaslegoaren ekimen propioaren bidetik baizik, eta derrigortasunak aurreratu nahi izan dituztenean, ahalegin horiek geldiaraziak izan dira. 47/1993 Dekretuaren zurruntasun horrek, euskalduntze prozesuak ikastetxeetako garapenezko osagarri endogenotaz baliatzeari ez dio biderik ematen, eta horrek islada zuzenak ditu ez bakarrik euskaldun- tze prozesuan baizik eta, era orokorrez, ikastetxeetako irakaskuntz proiektuetako autonomian, eta horri lotzen zaion hezkuntza sistema- ren bilakaeran ikastetxeek duten arduran.

Salbuespenak. Gorpu Dozenteei buruzko Legeak salbuespenak erre- glamendu bidez zehaztuko direla dio, baina Hizkuntz eskakizunaren

betetzea ezin izango da salbuetsi euskara irakas-hizkuntzatzen duten irakaslanpostuetan diharduten irakasleen kasuetan (49.2. art.). Agindu hori barkaezina da. Arazo interpretatiboa bere negatiboak dakar. Alegia, 2 H.E.aren betekizunetan salbuespenik onartzerik ez badago ere, 1 H.E.etan salbuespenak sartu ahal izango dira.

Hori horrela ulertu du 47/1993 Dekretuak, bosgarren Kapituluaren salbuespenetako erregimena arautu duelarik. Arau horren aburuz, salbuespena 1. H.E.aren derrigortasuneko erregimenean eraginik izan dezake, beti ere ondorengo kasuren batean:

a.- berrogeitabost urtetik gora dituztenak,

b.- hizkuntza ikasteko prozesurako beharrezko gaitasun trebeziarik ez duten pertsonak,

d.- euskara ikasteko ezintasuna edo eragozpenak sortzen dituzten ahalurritasun fisikoek edo psikikoek eragindako pertsonak.

Salbuetsita uzten diren irakasleek, gerora arautu daitezkeen deialdien bidez, lekualdaketa lehiaketetan parte hartu eta 1 H.E. ezarrita duten lanpostuak bete ahal izango dituzte, 47/1993 Dekretuaren aginduz berehalako derrigortasuna ezarri ez bazaie. Planteamendu honen ondorioetatik bat dugu, Dekretuak derrigortasun datarik zehaztu gabe utzi dituen lanpostu ugariak kontuan izanik, berauei 2003. urtera arte derrigortasuna atzeratuz, garai horretan Irakaskuntza Ertainetako salbuetsiak kopuru oso garrantzitsua izatea da espero daitekeena, izan ere, 2003. urtean 45 urtez gorako irakasle ugari egongo baita. Salbuesiak direnak kopuru garrantzitsua badira, zenbait ikastetxeren izaera linguistikoa aldatzea ezinezko bihurtuko da.

Bestalde, baremazioa antzintasun handiena dutenentzat onuragarriagoa da, baloratzen diren merituen lortu ahal izateko hainbat denbora eman behar baita. Etorkizunak, beraz, aurkeztuko digu salbuetsitako kideez beterik egon daitezkeen hizkuntz eredu eta ikastetxeen osaturiko mapa. Egoera hori gertatuz gero, botere publikoen iharduteko ahalmena erabat mugatua egongo litzateke. Eta baieztapen horren indar handiagoa hartzen du 47/1993 dekretuko bigarren Xedapen Gehigarriari so eginez (bigarren atala), bertan 1. H.E. etako derrigortasun daten aldaketek, salbuetsiak izan direnei/daitezkeenei eragingo ez diela agintzen baita³. Hizkuntza Eskakizunak eta derrigortasunak aldatu ahal izateko bide bakarra hizkuntz ereduaren aldaketaren bidez, etor daiteke soilik⁴. Hizkuntz ereduaren gaur egungo eritzia zein den

3) Lanpostuetako Zerrenden alkaketengatik eraginduak izan daitezkeen irakasleetaz, ikus 1994ko urriaren 26ko Agindua.

4) Baita ere, noski, 47/1993 Dekretuaren aldaketaren eskutik.

5) 47/1993 Dekretuko hamargarren artikulua argia da A ereduko Hizkuntza Eskakizun eta derrigortasunetaz diharduenean ondorengo aginduz, «no obstante la Administración impulsará la euskaldunización de algunos de los titulares de estos puestos de trabajo, de forma que en el segundo período a menos tres de ellos adquieran la capacitación lingüística correspondiente al Perfil Lingüístico 1» .

6) Ikus zentzu honetan Informe del Consejo Escolar de Euskadi, Vitoria-Gasteiz, 1994.

7) Ikus 224/1989 zbk.dun Dekretua, urriaren 17koaren eranskina eta, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko Ebazpena, 1990eko uztailaren 5koa non 1, 2, 3 eta 4. H.E. etako programak zehazten baitiren 1990ko uztailaren 12ko EHAAAn.

8) 47/1993 Dekretuko 11. artikulua H.E. egiaztatzeari zuzenduz eratuko diren apaimahaietan HAAE-IVAPeko ordezkari bana egongo dela agintzen du, Gorpu Dozenteei buruzko Legearen 53.1. artikuluan agintzen dena errepikatuz.

**«Zenbaitetan
Ikastetxeek
irakaslearen
euskalduntze prozesuan
pauso sakonagoak
ematerik zituztenean,
ez Administrazioaren
ekimenez,
irakaslearen ekimen
propioaren bidetik
baizik, eta
derrigortasunak
aurreratu nahi izan
dituztenean, ahalegin
horiek geldiaraziak
izan dira»**

jakinez gero, aipaturiko hori prozesu gertagaitza dela esaterik bada-
go.

Irakaslearen prestakuntza plangintza 1994ko urtarrilaren 28ko Agin-
duaren bidetik artikulatzen da, bertan IRALE irakaslearen hizkun-
tz prestakuntzarako programa arautzen delarik. Arau horretan IRA-
LEk antolatzen dituen ikastaroetako tokiak adjudikatzeko irizpiderik
ez da jaso, hortaz, ikasturte zehatz bakoitzerako irakas-programak
arautzen dituzten arauetan aipatutakoari so egin beharko zaio (ikus
1994ko urtarrilaren 28ko Agindua, 6. art.). Dekretuan zehazten den
irizpideetatik bat derrigortasun daten hurbiltasuna da. Irizpide hori
oinarrizkoena bada errekursoak helburu hori lortzen agortu daitezke,
inolako bitarteko finantzariorik geratuko ez litzatekeelarik derrigor-
tasunik ez duten irakaslanpostuetan diharduten irakasleen euskaldun-
tzea ahalbideratzeko, Dekretuak agintzen duenaren gainean errepara-
tu gabe⁵.

Hizkuntza Eskakizunak kreditatzea edo egiaztatzea, berau arautua izan
den eran, ez da egokitzat hartzen. Euskadiko Eskola Kontseiluaren Iriz-
penak azaldu zuenez, GUMA 1. H.E. kreditatzeko titulutzat jotzea ez
da egokia. Badirudi euskara gaitasunari buruzko tituluak sortu eta
luzatzeari laztasunik gabe ekin zaiola⁶, titulu horiei beranduago ga-
rrantzi handia eman zaielarik, Hizkuntza Eskakizunak kreditatzeko
baliogarritzat jo baitira. Aurrekoarekin hertsiki lotuta dator, irakaskun-
tza alorrerako zehaztu diren Hizkuntza Eskakizunak Administrazio
orokorrerako zehaztu direnekin bat ez etortzea.

Ez da desberdintasuna ongi ulertzen, parekotasunak egokitasunak
ekarriko bailituzke, irakaskuntza arloko kidegoa Administrazio Oroko-
rrera mugitzeari bide emanez. Bestalde, Administrazio orokorreko
Hizkuntza Eskakizunak erabat zehaztuak daude, eta ez ordea irakas-
kuntza arloan⁷. Irakaskuntza arloan, H.E.k 1994ko urtarrilaren 10eko
Aginduaren arabera egiaztatzen dira. Egiaztatzea, hemen ez da HAEE-
IVAPen bitartez burutzen gainerako Administrazio Publikoetan ger-
tatzen den bezala⁸.

LANPOSTU ZERRENDEK SORTZEN DITUZTEN ERAGINAK

Epigrafe honetan aipamen txiki bat besterik ez da egin nahi. Lanpos-
tu-zerrendak perfilatuak izan diren eran, Oinarrizko irakaskuntzan B
eta D ereduen zabaltze aukerak mugatzera datoz eta Irakaskuntza Er-
tainetan D eredura mugatzera. Eragin hau matizaturia gera daiteke Es-
kola Maparen eskutik, beraz, Eskola Maparen behin betiko onarpena-

ren zain geratu beharko da.

47/1993 DEKRETUA INDARREAN SARTU ONDOREN GERTATUTAKO OPOSAKETAK

Araubide autonomikoa indarrean sartu ondoren, Gorpu Dozenteei buruzko Legea eta 47/1993 Dekretua funtsean, bi oposaketa deitu dira; azter ditzagun horien ezaugarri nagusiak. 1995eko maiatzaren 4ko Aginduak Irakaskuntza Ertainetarako 915 irakaslanpostu eta OH Oren-tzat 365 irakaslanpostu deialdian integratu zituen. Azken horien artean 103ri 1. H.E. ezarri zitzaion eta 262ri 2. H.E. Hizkuntz Eskakizunen problematika, Irakaskuntza ertainak eta oinarrizkoak desberdinduz aztertua izango da.

A. Lehen Hezkuntza eta OHO

Lanpostu guztiak sarbide askekoak ziren, baina ez da bistatik galdu behar behin-behineko irakasleei eta irakasle ordezkoei lehiaketa fasean puntuazio altua ematen zitzaiela, eta horrek ia ezinezkotzat bihurtzen zuen Hezkuntza Administrazioan inolako zerbitzurik eskaini ez zituztenek funtzionaritzarako sarbidea izatea.

Egitate hori ikuspegi linguistikotik interes berezikoa da, izan ere, behin-behineko irakasle eta ordezko irakasleek derrigortasun datak bete ahal izateko baldintza berezi batzuk baitituzte. 47/1993 Dekretuak agintzen duenez, Funtzio Publikora lehenbiziko aldiz sartzen direnek, irakaslanpostuari ezarri zaion Hizkuntza Eskakizuna kreditatu beharko dute, edozein dela irakaslanpostuak duen derrigortasun data (47/1993 Dekretua, art. 7a). Behin-behineko eta ordezkoek, egoera berezia arrezagutua dute.

Lehenbiziko Xedapen Gehigarriak behin-behineko irakasleek eta irakasle ordezkoek funtzionaritzarako sarbidea lortzen badute, lanpostuaz jabetzen direnetik aurrera:

a.- hiru urteko epea izango dute, euskaraz edo euskara irakasteko izendapena jasota izan eta berehalako derrigortasuna duten 2 H.E. ezarrita duten lanpostuetara iristen badira (1. X.G., 1. apaldia),

b.- hiru urteko epe bera aplikatzen zaie berehalako derrigortasuna duten 1. H.E. ezarrita duten lanpostuetara iristen badira (1. X.G., 2. apaldia)

9) Ikus 1994ko apirilaren 27ko EHAA.

«Derrigortasuna indarrean sartzeko atzeratze hau justifikazio per-tsonala izan badezake ere, ez da justifikagarria hizkuntz plangintzaren ikuspegitik, izan ere funtzionamendu elebiduna da atzeratzen dena»

d.- bost urteko epea, berehalako derrigortasunik ez duten irakaslan-postuetara iristen badira (1. X.G., 3. apaldia).

Epe horiek, lanpostuaz jabetzen direnetik aurrera zenbatzen hasten dira, beraz derrigortasuna urte erantsi batez atzeratzen dira, praktikak egiteko beharra eta Departamentuko funtzionamenduak hala eskatuta. Derrigortasuna indarrean sartzeko atzeratze hau justifikazio per-tsonala izan badezake ere, ez da justifikagarria hizkuntz plangintzaren ikuspegitik, izan ere funtzionamendu elebiduna da atzeratzen dena berehalako derrigortasuna duten 1. H.E.ak eta berehalako derrigortasunik gabeko 1 eta 2 Hizkuntza Eskakizunik dituzten Ikastetxeen euskalduntze prozesuetan.

Planifikazioa, behin-behineko irakasleek eta ordezeko irakasleek frogak egiterakoan duten euskara mailarengatik baldintzatua agertuko da. Irakasle horiek Hizkuntza Eskakizuna betetzen ez badute, sistema guztiaren euskalduntze prozesuaren atzeratzea gertatuko da. 1994.ko oposaketa deialdian⁹ ateratako irakaslanpostuak 231 izan ziren, horietako 124ri 2. Hizkuntza Eskakizuna eskatzen zitzaielarik eta gairontzeko 107ri 1. H.E. 1. H.E. etako zenbateko garrantzitsu horrek ez du inolako justifikaziorik aurkitzen irakaskuntza sistema elebiduna lortu nahi duen hizkuntz planifikazioaren abiapuntutik. Administrazioak hizkuntz gaitasun nahikorik gabeko irakasleak kontratatzeari jarraitzen dio, ondoren irakasle horiei berziklatzeko aukera eskaini behar dielarik. Bestalde, oposaketa deialdiari bagagozkio ilegaltasun kutsurik baduela esaterik badago. Behin behineko irakasleei ez zaie euskara gaitasuna baloratzen, eta hori euskara gaitasuna baloratzea eskatzen dituzten xedapenen kontrakoa da. Izatez, Funtzio Publikora lehenbiziko aldiz sartzen direnei Hizkuntza Eskakizuna kreditatzea eskatzen zaie; ondoren, behin kreditatua dutenean oposaketa fasean euskara gaitasuna baloratu beharko litzaieke, bestelakoan euskara gaitasuna oposaketara aurkezteko giltza izanik, bestelako kideek nahiz eta H.E. kreditatua izan ez (behin-behineko irakasleak, kasu) dituzten merituekin batera euskara ez litzateke baloratuko.

Beste arazo interesgarri bat da, denboraldi baterako irakasle kontratuaren izaerarena. Egoera honetan leudeke Administrazioarentzat irakaskuntza iharduerarik burutu duten kide guztiak. Irakasle kontratuei aplikatzen zaien arau bereziak sortzen duten diskriminazioa ez dauka justifikazio errazik. Izan ere, gerta daiteke denboraldi txiki batean kontratatua egon den pertsona batek, Hizkuntza Eskakizuna kreditatzera behartuta ez izatea.

Kontratazioaren denboraldiaren laburtasunak ekartzen dituen arazoak, planteagarriak dira ere behin-behineko irakasleen kasuetan¹⁰.

B. Irakaskuntza Ertainak.

Irakaskuntza ertainetan, arazoa desberdina da. Batetik, bi hizkuntz eredu besterik ez dira, A eta D ereduak eta, bestetik, irakaslanpostuetarako sarbideak bide berezi bat aurkitzen du, «sarbide bertikala» ize-nezezaguna.

Gorpu Dozenteei buruzko Legearen 39.1 artikulua arabera, bigarren hezkuntzako eta Arte Plastiko eta Diseinuko irakasleen gorpuetan sartzeko deialdietan, beteko diren lanpostuen ehuneko berrogeita hamar, B taldeko irakasleen gorpuko funtzionarietzat gordeko dira; irakasle horiek gorpu horietan sartzeko behar den titulazioa edukitzeaz gain, gutxienez zortzi urteko antzinatasuna izan behar dute karrerako funtzionari lanetan (39.1 art.).

1993ko oposaketa deialdiak 915 irakaslanpostu jaso zituen, horietatik 488ri 1. H.E. ezarri zitzaion eta 427ri 2. H.E. 1. H.E.ekoen artean sarbide bertikalarentzat 244 erreserbatu ziren, 2. H.E.ekoen artean 213.

Hizkuntz plangintzak arlo honetan aldagai berri bat aurkitzen du, Oinarrizko Hezkuntza ez bezala. Irakaskuntza Ertainetan, Oinarrizko Hezkuntzan bezala, lehenbiziko Xedapen Gehigarria aplikatzen da, behin-behineko irakasleei eta denboraldirako kontratatuei aplikatzen zaiena. Aurrez Administrazioaren zerbitzura egon gabe oposaketa gainditzen dutenen portzentaia, oso urria da. Hortaz, planifikazioak atzeratzea pairatuko du, eta atzeratze horri gehitu beharko zaio sarbide bertikalaren bitartez hizkuntz gaitasunik gabe sartzeko direnen kopuruak dakarrena.

Azken baieztapen hori oinarritzen duen arazoia zein den aipa dezagun: 47/1993 Dekretuko zazpigarren artikulua Hizkuntza Eskakizuna kreditatzea agintzen du baina soilik Funtzio Publikora lehenbiziko aldiz sartzeko direnentzat. Aurreko epigrafean artikulua horren gainean ihardun badugu ere, honetan sakontasun handiagoz helduko diogu.

Lehenbizi eta ikuspegi enpiriko hutsetik abiatuz, artikulua horren eraginez Irakaskuntza Ertainetako gorpuetara sarbide bertikalaz sartzeko diren 244 irakasleak ez dute lehenbiziko unean hizkuntz eskakizuna kreditatu beharrik. Bakarrik kreditatu beharko dute derrigortasuna gaindituta duten Hizkuntza Eskakizunak. Irakaskuntza Ertainetako

10) Araubide horrek beste arazo interesgarri bat planteatzen du, hona hemen: arauak eskatzen dituen Hizkuntz Eskakizunak bete gabe dituzten funtzionari batzuk izendatzen dira, ondoren, hizkuntz eskakizuna kreditatu beharko dutelarik; baina une horretan Hizkuntza Eskakizuna kreditatzen ez badute, izendapena akaso errebokatu beharko litzateke.

**«Aurrez
Administrazioaren
zerbitzura egon gabe
oposaketa gainditzen
dutenen portzentaia,
oso urria da. Hortaz,
planifikazioak
atzeratzea pairatuko
du, eta atzeratze horri
gehitu beharko zaio
sarbide bertikalaren
bitartez hizkuntz
gaitasunik gabe
sartzen direnen
kopuruak dakarrena»**

A hizkuntz ereduko 1. H.E.k hamar urteren buruan derrigortasunik gabekoak direnez (ikus 47/1993 Dekretua 10 art.), epe hori bukatu aurretik sarbide bertikalaz sartu direnak ez dute inolako hizkuntz gaitasunik egiaztatu beharko, beti ere indarrean dagoen araubide hau aldatzen ez bada, noski. Ondorioa gardena da, hots, maisu-maistrak irakasle bihurtzeko arautu den zubiak Irakaskuntza Ertainetako euskalduntze prozesua atzeratzeari bide eman dio, izan ere maisu-maistrek beren hizkuntz gaitasun eza Irakaskuntza Ertainetara ekarri baitute.

Aurreko horri beste zehaztasun bat gehitu beharko litzaioke: Irakaskuntza Ertainetan bi hizkuntz eredu besterik ez dago: A eta D. Baina ikasleek hiru ereduetatik datoz: A,B eta D. A ereduok, normalean, baina ez dago ezertan kasu guztietan horrela izateko beharrik, Irakaskuntza Ertainetako A eredura datoz. Baina B ereduok zein eredu hautatzen ohi dute? Hautatu beharreko eredu eskaintzarenatik baldintzatua agertu daiteke eta bestelako baldintzak ere badute horretan zeresanik, hala nola ikastetxea lekutua dagoen gunea edota ikastetxeetako zuzendaritza taldeek ikasleengan izan dezaketen eragina. Hortaz, OHOk B ereduko ikasleek Irakaskuntza Ertainetako D eredura igarotzea, fluxu normalizat hartu beharko litzateke, eta horrek eragin zuzenak izango ditu euskalduntze prozesuan.

Hizkuntza Eskakizunak arautzeari buruzko araubideari egin dakiokeen kritikari, gehitu beharko litzaioke irakaskuntzako eredu linguistikoen gain egin daitekeena. Arazoa, ordea, ez da bertan bukatzen, izan ere, ikuspegi juridikoaren abiapuntutik, bestelako arazo zenbait antzeman baitaitezke.

47/1993 Dekretuak Hizkuntza Eskakizunak egiaztatzeari buruzkoan egiten duen bikoizketa ez da justifikagarria zuzenbidearen arabera. Zazpigarren artikulua, Hizkuntza Eskakizuna egiaztatze beharra lehenbiziko aldiz funtzionaritzara sartzen direnei ezartzen die soilik. 47/1993 Dekretuko agindu horrek Gorpu dozenteei buruzko Legeko 49.3 artikuluan eta hamabosgarren Xedapen Gehigarrian du oinarria.

Agindu horiek, berdintasun printzipioarekin bateragarriak ote diren zalantza arrazonagarriak, behinik-behin agertzen dituzte. Lehenbiziko aldiz Funtzio Publiko Dozentera sartzen direnak eta sarbide bertikalaz sartzen direnen artean arautu den desberdintasunak, edo diskriminazioa nahi bada, ez du justifikazio arrazonagarri eta neurritzorik aurkitzen.

Baina, horrez gainera, oposaketako deialditik bertatik ilegaltasun argi bat ondorioztatzen da, oposaketa-deialdian jasotakoaren arabera burutu badira. Arrazoa ondorengoa da: 1993ko maiatzaren 4ko Agindua-ren bigarren eranskinak merituen baremazioa jasotzen badu ere, euskararen ezagutza ez du meritutzat jotzen. Beraz, sarbide bertikalaren bitartez sartzen direnak ez dute Hizkuntza Eskakizuna kreditatu beharrik, eta hori gutxi balitz, inori ez litzaioke euskararen ezagutza baloratuko¹¹. (Gorpu Dozenteetako Legeko 48 art. eta hurrengoak, hizkuntz normalkuntzari buruzkoak, interpretatu behar dira. Lege horretan agintzen denaren arabera, euskararen ezagutza ez litzateke ezertan meritu bezala baloratu behar, baina Legeak ez du aukera hori debekatzeko ere).

Hizkuntza Eskakizunak arautzeari buruzko 47/1993 Dekretuaren edukia, espero zitekeena bezain egokia ez dela dirudi, hobegarria baita.

ONDORIO GISA

Jarraian era laburrez aipatuko diren ondorioak, denbora aldetik azterketa zabalagoa eskatzen dute, 1993. urtetik honezkeroko azterketara soilik mugatu gabe. Litekeena da botere publikoetako aurreko interbentzioek, berez konplexua den hizkuntz planifikazioari buruzko gai hau baldintzatu izana, baina ponentzia honek eskatzen duen murriztasunak, azterketa zabalagoa egiteari ez dio biderik ematen.

Irakaskuntzako hizkuntz plangintzaren berezitasuntzat jo beharko litzateke, planifikazio berantiarra dela eta Legeek zehazten dituzten helburuekiko bat ez datorrela. Ezarritako hizkuntz ereduak ez dute hizkuntz ofizialen ezagutzarik bermatzen. A eredia desagertu beharko litzateke, indarrean dagoen araubidearen helburuak bermatzen ez baititu.

Arauturiko Hizkuntza Eskakizunak ez dute Ikastetxeetako euskarazko funtzionamendua bermatzen. A ereduan 1. H.E.ek ez dute derrihortasun egunik. B ereduan oraindik ere mantentzen da irakaslego euskalduna eta erdaldunaren ratioa, erdizka eta erdizka. D ereduan 1. H.E. bat sartzen da, eta horrek ez du justifikazio errazik. Ereduak horrela hezurramituak izan direlarik eta horri gehitzen badiogu Ikastetxe berean eredu desberdinak kokatzen direla, erraz antzeman daiteke funtzionamendu elebiduna nekez lor daitekeela. Edozer dela 47/1993 Dekretuak 1 H.E. ari buruz dioena, benetan gertatzen dena da oso ikastetxe gutxi direla benetako funtzionamendu elebiduna aurrera erama-

11) Ondorio horretara, deialdian jasotako baremazio arauetan erreparatuz hel daiteke. Edozelan ere, ez da ezagutzen epaimahai kalifikatzaileek zein praktika jarraitu duten. Gorpu Dozentei buruzko Legearen 49.1. artikulua, bere azken apaldian xedatzen du: «Hizkuntza Eskakizuna derrigorrezkoa ez bada, euskaraz jakiteari merezimendu modura zenbaterainoko balioa eman behar zaion zehazteko balioa luke». 42.2. artikulua honakoa agintzen du: «Derrigortasun egunetik aurrera, nahitaez bete beharko da Hizkuntza Eskakizuna lanpostua bete eta bertan aritzeko». 49.3. artikulua dio: «Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko bete behar den Hizkuntza Eskakizuna, lege honen erabaki gehigarrietako hamabosgarrenean ezarritakoaren arabera gauzatuko da». Eta aipaturiko Xedapen Gehigarri horretan agintzen da: «Erreglamendu bidez zehaztuko diren salbuespenak salbuespen, irakaskuntzako funtzio publikoan lehenengo aldiz sartzen direnek aipaturiko arauan ezarritako hizkuntz eskakizuna betetzen dutela egiaztatatu beharko dute».

«Irakaskuntzako hizkuntz plangintzaren berezitasuntzat jo beharko lirateke, planifikazio berantiarra dela eta Legeek zehazten dituzten helburuekiko bat ez datorrela. Ezarritako hizkuntz ereduak ez dute hiz-kuntz ofizialen ezagutzarik bermatzen. A ereduak desagertu beharko litzateke, indarrean dagoen araubidearen helburuak bermatzen ez baititu»

teko gaitasunik dutenak.

Irakaskuntza Ertainetan, ereduak gutxitzen dira baina A ereduak berean dirau, A ereduak indartzen da OHOTik sarbide bertikalaren bidez hainbat maisu/maistra Ertainetako irakasle izatera pasatzen direlako, eta azken horrek eskaintza euskalduna erabat baldintzatzen du.

Ikastetxeetako funtzionamendu elebiduna kasu askotan ezinezko bihurtuko da, izan ere, irakasle gisa sartzen diren askok Hizkuntz Eskakizunen derrigortasuna betetzetik salbuetsita baitaude eta, nahiz eta derrigortasun horiek aldatu, kideek ez dute aldaketa horiek bete beharko. Arazo hau sarbide bertikaletik irakaskuntza ertaintara sartu direnekin isladatuko da, OHOk soberako irakasleak Irakaskuntza Ertaintara datozenean, hizkuntz gaitasun eza ere bigarrenengo irakaskuntzara dakarte. 47/1993 Dekretua eta deituak izan diren oposaketak oinarriak, Konstituzioarekin eta Legeekin bateragarriak ote diren zalantza arrazonagarriak dakarte.

Araubidea, Ikastetxe proiektu zenbaitentzako oztopoa izan da, irakasleen esfortzuz 47/1993 Dekretuak zehazten dituen euskalduntze prozesutik goragoko emaitzak lortzerik izan denean, hura oztopatzeri etorri baita. Era berean, proiektu dozenteari ez zaio inolako rol-ik eman euskalduntze prozesuaren eragile gisa. 47/1993 Dekretuak ez du horretarako inolako zirrikiturik uzten.

Hizkuntz plangintzaren etorkizunak gaingitu beharko duen lehenbiziko arazoa, gaur egun dagoen irakaslearena da; eta arazo hori Autonomi Elkartearen araubide propioan oinarritu ez den kontratazio politikaren ondorengoa da, zeinetan hizkuntz elementua kontuan hartu izan ez dela pentsatzeko arrazoirik ez den falta. Une honetan gaia aztertze baliabide egokia eskola mapa izan daiteke, orainartekoan isilpeko gaia izan bada ere, orainsu aurkeztu berri du Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketarako Sailburuak Eskola Maparen proposamena Euskal Parlamentuko Hezkuntza eta Kulturako Batzordearen aurrean. Eskola Mapa lanabes ezin hobea da ordenamendu juridikoak agintzen dituen helburuak betearazteko, hots, ikasle guztiak euskaraz zein gaztelaraz gaitasuna izatea eta sistemaren funtzionamendu elebiduna lortze bidean jarriko duen plangintza egoki bat zehazteko. Hala izan da dila.